

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko ekainak 16 · 1275 zenbakia

POESIAREN OASIA IBARKURUTZEN

2MÓ 229€
PROGRESIBO
BAT EGUZKITAKOA IZAN DAITEKE

B L O C K S

BILDUMA BERRIA



Bidebarrieta, 2
943 20 05 22
EIBAR



eskatu hitzordua WhatsApp bidez

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua



28. Euskal Jaialdia

HERRI-KIROLETAKO ERAKUSTALDIA ETA LEHIAKETA

Ekainak 18 / 12:30
Untzaga plazan

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Ekainaren 10 Kalean Ehuntzeko Munduko Eguna dela eta, Berdintasun Zerbitzua-Andretxearen ekimenez Untzagan matazak ehuntzen aritu ziren Altzoa elkarteak emakumeak. Aldarrikapena eta jaia, biak elkartzen dituen ekitaldia "Kaleak gureak dira" goiburuari jarraituta burutu zen. Eibarren bezala, Euskal Herriko beste toki askotan egin ziren horrelako ekimenak, "indarkeria sexistari puntu eta kitto ematen lagunduko duten sareak ehuntzeko ekintza sinboliko gisa".



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Hurrengo aleak hilaren 22an eta 28an

Sanjuanak direla-eta, datorren astean egun batean aurreratuko dugu alea eta, barixakua San Juan bezpera denez, egun horretan kaleratu beharrean, eguenean (hilaren 22an) izango duzue zuen buzoietan. Bestalde, urterokoari jarraituz, jaien ondorengo "Bixamona" alea ahal den azkarren kalean izateko, hurrengo asteko zenbakia eguaztenean (hilaren 28an) izango da kalean. Horregatik, mesedez kontuan izan datu horiek edozein informazio, zorion-agur edo eskela kaleratu nahi baduzue.

Bestalde, aipatutako bi ale horien ostean beste hiru kaleratuko ditugu ikasturteari amaiera eman aurretik. Uztailaren 7an, 14an eta 21ean izango dituzue esku artean. Horiez gain, uztailaren 23ko Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak direla-eta, betiko lez, egun horretako Eibarko datuak gure web orrian tratatuko ditugu (oraingoan ez dugu paperezko hurrengo eguneko goizeko alea aterako).

Erredakzioa

Astean esanak



Nire buru honek ez du oraindik ulertzen Frantziako errugbi txapelketaren finalerdiak zergatik jokatu ziren pasa den asteburuan Donostian. Errugbiak dituen arauetako bat eskuz beti atzera pasa behar dela da. Igande goizeko argazkiari ere buelta eman eta atzera begiratu diogu: kaleak garbitzen lan izugarria izan zuten Donostiako Udaleko beharginek, hirira etorritako zaleek errugbiaren araua kalean ere bete eta, parez pare zituzten zakarrontziak erabili beharrean, eskuarekin atzera egin eta edalontzi, plater zein aho-zapiak lurrera bota zituztelako. Zerri eginda utzi zuten hiria, baina gizalegez jokatu zutela gogoratu, hori da garrantzitsuena. Odolik ez bada, gizalegea txapeldun.

GARAZI KAMIO, zutabegilea

Jendartean jakina da aldi baterako lan-kontratu bat amaitzean langileek eskubidea dutela lan egindako urte bakoitzeko soldataren hamabi eguneko kalte-ordaina kobratzeko. Hain ezaguna ez bada ere, kirolari profesionalak ere badute eskubide hori. Klub berdinean lan egindako urte bakoitzeko hamabi eguneko kalte-ordain horren kalkulua, kontratu urteen eta azken urtean jasotako ordainsari gordinaren arabera zehazten da. Hainbat web ataritako informazioaren arabera, Iñigo Martinezek sei urteko lotura izan badu Athleticekin eta azken urtean bederatzita milioi euro jaso baditu, 72 eguneko soldataren baliokidea egokituko litzaioke: gutxi gorabehera 1,8 milioi euro, biribilduz. Athleticek kontratu-luzapen eskaintzarik egin ez badio, horretan handitu daiteke finikitoaren zenbatekoa.

KOLDO IRURZUN, Zuzenbidean doktorea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORBAN → Azaleko zikinunea. "Egin zestan haginkadiagaz, orbana laga zestan betiko". Armagintzan, mailetunea, zikinunea. "Orban handia egin jako kaiñoiari". Pekatua. "Gure orbanak, zeñek garbittu?".

ORBANDU → Zikindu, mailatu. "Hau atiau orbandu dabenak berak zurittu deixala". Tailarretako berba. Amaitutako pieza markatu, orbana ezarri. "Orbandik hori!".

1973

Perurena garaile berriro Eibarren

Orain dela egun gutxi laga digun Oiartzungo txirrindulari handiak, estatu mailan garaipen gehien lortu dituen izateaz gain, Eibarren ere hainbatetan izan zen lehena helmugaratzen.

Argazkian Txomin Perurena Isasin, Markeskua atzean duela.



Farmaziak

BARIXAKUA 16
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ZAPATUA 17
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 18
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ASTELEHENA 19
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 20
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 21
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
EGUENA 22
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ BETI, 2023an, Castaño (J. Etxeberria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Joaquin Uriguen Aranzabal.** 82 urte. 2023-06-08.
- **Luis Maria Osoro Arregi.** 76 urte. 2023-06-08.
- **Trinidad Perez Ballesteros.** 86 urte. 2023-06-11.
- **Miguel Gonzalez Suarez.** 86 urte. 2023-06-11.
- **Laura Garitagoitia Berrueta.** 93 urte. 2023-06-12.
- **Ignacio Ortiz de Villalba Urbieto.** 93 urte. 2023-06-13.

Jaiotakoak

- **Luka Gomez Arana.** 2023-05-28.
- **Ousaid Harrak.** 2023-05-30.
- **Jare Gorosabel Gurrutxaga.** 2023-06-04.
- **Arale Gesalaga Basurto.** 2023-06-05.
- **Hamza Nasir.** 2023-06-05.



Indarkeria sexistari "puntu eta kitto" esan zioten Altzoa elkartekoek zapatuan

Ekainak 10 Kalean Ehuntzeko Munduko Eguna izaten dela eta, Altzoa Eibarko alargunen elkarteko emakumeak Untzagan matazako ehuntzen aritu ziren zapatu goizean. Aldarrikapena eta jaia, biak elkartzen dituen ekitaldia "Kaleak gureak dira" goiburuari jarraituta burutu zen. Eibarren bezala, Euskal Herriko beste toki askotan egin ziren horrelako ekimenak, "indarkeria

ria sexistari puntu eta kitto ematen lagunduko duten sareak ehuntzeko ekintza sinboliko gisa".

Bideoa gure YouTube kanalean ikusgai



Gaur arratsaldeko 18:00etatik aurrera moztuko dute trafikoa erdiguneko kaleetan, domeka gaueraino

Gaur eta bihar Untzaga plazan egingo diren Su ta Gar eta Fangoria taldeen kontzertuak direla-eta, gaur arratsaldetik moztuko dute trafikoa erdigunean: 18:00etatik aurrera bakarrik oinezkoak ibili ahal izango dira erdialdeko kaleetan, domeka gauera arte. Bestalde, jende asko egotea espero denez, Isasi, Juan Gisasola eta Egogain kaleak ibilgailuentzat itxiko dituzte egun bietan, 20:30etatik kontzertuak amaitu arte.

Bestalde, Udaletik jakinarazi dutenez, asteburu honetan eta hurrengoan El Corte Ingleseko aparkalekuaren irekiera-ordutegia luzatuko dute: gaur eta bihar goizaldean, 03:00ak arte egongo da zabalik. Eta hurrengo asteburuan, berriz, etenik gabe zabalduko dute, hilaren 23ko ohiko irekiera-ordutegitik domekako 15:00ak arte.



Kultura eta Sormen Industrien sektorean ari direnen direktorioa sortzeko lanean dihardu Debegesa garapen agentziak

Debabarreneko Plan Estrategikoa 2030 berriaren ildotik, Debegesa Kultura eta Sormen Industrien sektorean lanean hasi da, sektore horretako profesionaleri, enpresei eta ekintzailei laguntzeko eta sektorea dinamizatzen etorkizuneko proiektuak bilatzeko asmoz. KSItan diharduten pertsonen, enpresen eta profesionalen arteko gogoeta-foro baterako deialdia egiten dute, "erronkei, beharrei, hobekuntza-estrategiei eta proiektu posiblei buruz

hitz egin ahal izateko eta etorkizun hurbilari begira lankidetzaren sare bat eratzen hasteko", azaldu dute Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziatik. Lehenengo saioa Meet bitartez egingo da ekainaren 28an, 14:00etan. Interesatuak m.garcia@debegesa.eus emailera idatzi dezekete, edo 943 82 01 10 telefonora deitu. "Ziur gaude ondorio eta hausnarketa interesgarri asko aterako ditugula, sektorearen garapenean aurrera egingiten jarraitzeko", azaldu dute.



Toribio Echevarria Sarietarako 32 proposamen jaso dituzte

Maiatzaren 24an itxi zuten Toribio Echevarria sarien 33. edizioko kategorietara aurkeztu daitezkeen hautagaitzak aurkezteko epea, eta 32 proposamen jaso dituzte: 18 “Ideak/Enpresa Proiektuak” kategorian aurkeztu dira, eta gainerako 14ak “Enpresa Berria” sarira. Gainera, Udalak ematen dituen “Eibarko Enpresa” sari berezietan parte hartzeko aukera izango dute lauk. Epaimahaia proposamenak ebaluatzen ari da. Finalerako aukeratzen dituztenek beraien proiektua aurkeztuko diote epaimahaiari, ekainaren 21ean, eta uztailaren 5ean emango dira ezagutzera irabazleak Teknikarren egingo den sari-banaketan.



Alkatea eta udalbatza berria aukeratzeko plenoa bihar egingo da, goizeko 09:00etan

Bihar goizeko 09:00etan udaletxean egingo den Udal Batzarrean aukeratzeko dute datozen lau urteotarako Eibarko alkatea izango dena eta, horrekin batera, Udalbatza berria osatzeko duten ordezkariak. Ez ohiko bilkuran horretan maiatzaren 28ko Udal Hauteskundeetan hautatutako 21 zinegotziek kargua hartu eta bozketa bidez alkatea aukeratzeko dute. Aurreko hilean egindako Udal Hauteskundeetan, Eibarren alderdi

bozkatuena PSE-EE izan zen, 4.474 botorekin (8 ordezkari); ondoren EH-Bildu, 3.301 botorekin (6 ordezkari); hirugarren bozkatuena Eibarko EAJ-PNV, 3.161 botorekin (6 ordezkari); eta, azkenik, Elkarrekin Podemos, 663 botorekin (ordezkari bat). Biharko bilkura, egiten diren beste guztiak bezala, publikoa izango da eta, horrez gain, streaming bidez jarraitzeko aukera egongo da, Udalaren YouTube kanalaren bitartez.



Ana Maria Larrañaga Mayora

2023/05/31



“Beti izango zaitugu gogoan”

- ETXEOAK -



Joaquin Uriguen Aranzabal

2023/06/08



“Bila dezazula San Salbadorreko haizea orain hartu dezun bizileku berrian”

- IDOIAREN LAGUNAK -



Bihar goizean egingo den minbiziaren kontrako martxara batzeko deia

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarrekin martxa solidarioaren 2. edizioa antolatu du biharko: 3 kilometroko martxa 11:00etan hasiko da, Untzaga plazan, eta leku berean amaituko da. Ainhoa Oregi Elkarteko langile soziala eta martxaren arduradunak aste honetan egindako aurkezpenaren azaldukoari jarraituta, “Untzagatik Urki-zuraino, Azpirineko etxeraino jaitziko gara, handik Arragueta kaletik gora jarraitzeko. Errebal, Toribio Etxebarria, San Andres pasealekua eta Amañakoa zeharkatuko ditugu ondoren eta, El Corte Inglese-tik Iasira jarraituko du martxak, Untzagaraino. Bertan indarrak berreskuratzeko aukera izango dute parte-hartzaileak”. Bestalde, beroketa gisa, 10:30etik aurrera Zumba saioa egingo da Untzagan bertan, Kaxa Mugimendu eta Sormen Gunearen eskutik.

Esandakoaren arabera, elkarrekin hiru helburu finkatu ditu aurten: gizartearen parte-hartzea areago-

tzea jarduera fisiko solidario baten bitartez; minbizia ikusaraztea gai-xotasunaren inguruko tabu soziala ezabatuz; eta kirolaren bidez bizimodu osasungarria sustatzea. Maria Amor, Eibarko elkarteko presidentearen berbetan, “Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartean gauza bat dugu oso argi: pazienteak eta bere senideak erdigunean jarri nahi ditugu. Horregatik, jarduera honekin lortzen ditugun onura guztiak pazienteei eta senideei doako zerbitzuak eskaintzen jarraitze-ra bideratuko ditugu”. Bestalde, Jon Iraola, jarduneko alkateak esan zuenez, “2019ko edizioak pertsona ugari bildu zituen eta, aurten ere, herritarrak ekimen solidario honekin berriro bat egitera animatu nahi ditugu”.

Dortsalak, kamiseta barne, Untzagako jubiletxean, Amaña es la Caña kioskoan eta Minbiziaren Aurka elkarrekin Eibarren duen egoitzan (Ardantza, 11) eros daitezke.

Umeentzako jolasak egingo dituzte Eibar BHI-ko ikasleek gaur Untzagan

Aurreko asteko aldizkarian aurreratu genizuen bezala, Eibar BHI-ko ikasleek umeentzako jokoak eskainiko dituzte gaur arratsaldean, 16:30etik 19:45era, Untzagan. Batxilergoko 1. maila amaitu berri duten ikasleen hasierako asmoa ikasbidairako dirua lortzea zen, baina ideia garatzen joan ahala beste helburu batzuk sortzen joan dira: “Umeentzat propio zerbait berezia eskaintzeko, umeen artean euskararen erabilera bultzatzeko eta eskola ezberdinetako umeak elkar ezagutzeko, ekintza ezberdinak egingo ditugu”. Eibartar guztiak gonbidatu nahi dituzte.



Sexu Bizi-Gune Morea ipiniko dute Untzagan

Udaletik jakinarazi dutenez, San Juan jaiak direla eta, Sexu Bizi-Gune Morea jarriko da Untzagan, ondorengo ordutegian: gaur eta bihar, gauerditik 03:00etara; ekainaren 22an, 22:00etatik 01:00etara; eta ekainaren 23an eta 24an, gauerditik 03:00etara. Azaldu dutenez, “Sexu Bizi-Gune Morea, sexualitate eta harreman osasuntsuak bultzatzen dituen zerbitzua da, informazioa, aholkularitza eta genero erasoen aurkako babes gunea eskaintzen duen gune mugikorra”.

Eibarko artistak Kantabriara joan dira bidaia kulturalean

Eibarko Artisten Elkarteak bidaia kulturala egin zuten aurreko asteburuan, zapatuan. Egun oso-rako txangoa izan zen eta Kantabriako toki batzuk ikustera joateko aprobeztatu zuten eguna: Ramales de la Victoria dagoen Cullalverako haitzuloa ikusten ibili ziren eta Castro Urdialesen bisita gidatua egin zuten.



Txosnagunea espazio segurua izateko Brigada Moreak egongo dira aurten ere

Jaixak Herrixak Herrixandakok Sanjuanetarako antolatutako txosnagunea "gune segurua" izango dela argi laga nahi dute eta, asmo horrekin eta mezua ondo zabaltzeko, atzo bertan talde argazkia egin zuten. Hala ere, Brigada Moreak salatu duenez, "feministok urtero lan hau egitera behartuta ikusten ditugu gure buruak, txosnagunea espazio segurua izan dadin baliabide eta neurriak hartzerantz derrigor-

tuta". Horrela, aurten ere Brigada Morea egongo da eta "Eibarko neska gazte, trans eta bollera oro" parte hartzerantz animatu nahi dituzte. Era berean, "txosnagunea gune seguru bilakatzeko bidean, gizonen rol aktiboa azpimarratu nahi dugu. Posizionatu zaitezte. Zuek ere baduzue zeregina borroka honetan, zuen eta zuen lagunen jarrerak hausnartu eta kritikatzeara hain zuzen ere. Ez badakizu egoten, ez etorri".



<p>FUNEUSKADI Uztape Komplexua</p> <p>FUNERARIA MUGICA Funerariak</p> <p>TANATORIO EIBAR</p>	<p>FUNERARIA MUGICA Funerariak</p> <p>TANATORIO CREMATARIO EGOIBAR</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otsola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xilillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olanoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	

<p>cepa Eibar</p>	<p>Isasi, 39 943 20 88 56 673 11 81 81</p>	
<p>EPA EIBAR HHI 23/24 ikasturtea</p>		
<p>ESKANTZA DBH titulua / Informatika (0 maila) Euskera eta Ingelesa / Unibertsitate eta Zikloetarako sarrera / Atzeritarrentzako gaztelania / Oinarritzko ezagutzak: Irakurketa-Idazketa-Mintzamena</p>		
<p>MATRIKULA ekainaren 20tik 30era</p>	<p>ORDUTEGIA 10etatik 13etara</p>	<p>online matrikula: https://epaeibar.hezkuntza.net/</p>

Euskararen inguruko kezkak gazteen ahotik

Aldatze ikastetxeko eta Eibar BHI-ko ikasleak herriko erabaki garrantzitsuenak hartzen diren tokian jarri ziren eguaztenean, hau da, udaletxeko pleno-aretoa. Oraingoan eurek hartu zuten hitza eta alderdi politikoetako kideek esandakoa entzun zuten. Gazteek euskararen egoerari buruz jardun zuten eta gaiaren inguruan dituzten kezkak helarazi zizkieten ordezkari politikoei.

BIDEOA



Euskara nola bizi duten azaldu zuten DBH-ko ikasleek, eta egunero bizi dituzten egoeretatik eta eskolan egin duten hausnarketetatik ateratako ondorioak plazaratu zituzten. Politikariek adi entzun zuten, oharrak hartu zituzten eta etxekolanekin amaitu zuten saioa, ikasleek ez baitzituzten nolanhiko kontuak aipatu.

Ikasleek taldeka azaldu zituzten euren hausnarketak eta, bakoitzak berea aipatu bazuen ere, gauza batzuetan ados zetozen. Adibidez, asko aipatu zuten euskara bakarrik (edo ia bakarrik) egoera zehatz batzuetan erabiltzeko ohitura dutela. Hau da, eskolan, toki formaletan eta horrelakoetan. Beraz, euskaraz egiteko derrigortasuna sentitzen dute eta, ondorioz, ez dira eroso sentitzen hizkuntza erabiltzeko orduan. Ostera, aisialdian gaztelera gailentzen dela adierazi zuten.

Askotan aipatu zuten, baita ere, euskara ama hizkuntza ez dutenek euskaraz egiteko orduan sentitzen duten zailtasunak asko baldintzatzen duela hizketaldiak euskaraz egitea. “Ez dira eroso sentitzen euskaraz egiten, askotan ez dituzte berbak aurkitzen, urduri jartzen dira eta, horregatik, gaztelera jotzen dute. Eta ondorioz, ama hizkuntza euskara dugunok ere, gaztelera jotzen dugu, horrela ohitu garelako”, azaldu zuten.

Ohitura horiek kezkagarritzat jo zituzten euskararen normalizazioaren bidean, baina are larriagoak iruditu zaizkie beste joera batzuk. Hala nola, adierazi zuten gazte batzuek euskara mesprezatzen dutela, “botaka



DBH-ko ikasleek taldeka azaldu zituzten euskararen inguruan egindako hausnarketak. EKHI BELAR

Ikasle batzuek gaztelerara jotzen dute baztertuak ez izateko edo ezberdinak ez sentitzeko

egiteko gogoia” sartzen zaiela. Euskara lanerako bakarrik balio duen hizkuntza dela diote hauek.

Beste batzuek, ostera, “frikiak” sentitu dira euskaraz egiteagatik. “Euskaraz zabilta? Baina zergatik?”, esaten diete ikaskideek gazte batzuei, arraroa izango balitz bezala. “Orduan, gaztelerara jotzen dugu taldeko bat gehiago izateko, baztertuak ez izateko edo ezberdinak ez sentitzeko”, aipatu zuten gazteek.

Ikasleen proposamenak

Gauzak horrela, plenoan jardun zuten ikasleek hainbat proposamen luzatu zizkieten politikariei herrian euskara sustatu eta bere erabilera normalizatzen laguntzeko.

Ikasleek, batez ere, euskara erdigunean kokatzeko eskaera egin zuten. “Gizarteari jakinarazi behar zaio euskara ez dela lana lortzeko tresna bakarrik eta jarduera gehiago egin beharko lirateke euskaraz, euskara normaltasunez bizitzeko”, esan zuten batzuek.

Arlo kulturalari garrantzia handia eman zioten eta euskal taldeen kontzertu gehiago antolatzea, kultur-jarduera gehiago euskaraz egitea eta euskarazko pelikula eta antzezlan gehiago eskaintzea ondo egongo litzatekeela adierazi zuten, besteak beste.

Erakunde publikoei, orokorrean, aisialdia euskaraz egiteko eskaintza sustatzea, toki publikoetan euskararen presentzia indartzea eta familientzat tailer edo formakuntza saioak antolatzea eskatu zieten euskararen transmisioa bermatzeko.





Gaurko kontzertua oso berezia izango da Su ta Gar taldearentzat, etxean bertan jotzeaz gain aspaldiko lagunekin partekatuko duelako eskenatokia.

Asteburu bete-beteak, Sanjuanetarako berotzen joateko

Berez datorren asteburuan hasiko dira Sanjuanak, baina azken urteotako martxari jarraituta, aurreko asteburuak ere ekitaldiz gainezka datoz aurten ere. Atzean laga dugunak Dantzari Eguna, Boxeo Gaua, Eibarko III. Txistu Eguna, Breaking Eibar eta Eibar Kantuan bezalako jaialdietan gozatzeko aukera eman digu (hurrengo hiru orrialdeetan). Aste honek jaietarako antolatu dituzten bi kontzertu nagusiak ekarriko dizkigu, besteak beste.

Eibarko alarma guztiak pizteko prest etorriko zaizkigu Su ta Gar taldekoak gaur gauean. Untzagan emango duten kontzertua oso berezia izango da, gainera. Alde batetik, etxean joko dutelako. Eta, bestetik, eibartarrek lehen kontzertua eman zutela 35 urte beteko direlako aurten eta, gainera, lehen kontzertu hartan lagun izan zuten Napalm taldetik sortu zelako gaur oholtza beraiekin partekatzen izango den Ehun Kilo taldea. Eta, hori gutxi



balitz, sasoi hartan Aitor Gorosabelek talde bietan, Napalmen eta Su ta Garren jotzen zuen batera.

Ehun Kilo taldeak zabalduko du gaurko kontzertua, 21:30ak aldera. 1991. urtean Elgoibarren sortu zen talde hau, Su ta Garrekin batera, euskal heavyaren sorreran nahi-taez aipatu beharra dago. Taldea osatu eta bi disko argitaratu zituzten: Euli artean (Oihuka, 1994) eta Esaiek... (Oihuka, 1995). Rock gogorra beraien izaera propioarekin jorratzen ahalegindu ziren. Taldea sort eta sei urtera, taldekideak 1997ko urrian banandu ziren, Elgoibarko gaztetxean azken kontzertua eman eta gero. Taldea desegin eta 10 urtera, 2017an, Hatorxu Rock jaialdiak bira txiki bat egitera gonbidatu eta hiruzpalau kontzertu egin zituzten, formazio originala berreskuratuz. Beraien saioa amaitu eta jarraian hasiko da Eibarren aurkezpenik behar ez duen Su ta Gar taldearen kontzertua.

Musika elektronikoa zaturako
Eta, biharko gaua girotzeko, beste erritmo batzuk eskainiko dituen Fangoria taldearen kontzertua hartuko du Untzaga plazak, 23:00etatik aurrera. Aurretik ere beste talde ezagun batzuetan aritu izan den Alaskak eta Nacho Canutek osatutako taldea 1989an jaio zen. Hasieran “acid house” delakoaren iturritik edan bazuten ere, egiten duten musikari pop, rock eta bestelako estiloak gehitzen joan dira eta, gaur egun, musika elektronikoa egiten dute. “Ex profeso” azken lanarekin etorriko zaizkigu. Kontzertua amaitu eta jarraian, 01:00etik 03:00etara, Dantz Point jaialdian musika elektronikoa izango da jaun eta jabe, Unai Santos DJ eibartarraren eta Yahaira DJ-aren eskutik.







ARGAZKIAK: KULTURA-EIBARKO UDALA

Argazki gehiago gure mediatekan



“Artxibo digitala irekita egongo da, Klub Deportiboa herriarena dela pentsatzen dugulako”

ARESATZ USOBIAGA ETA IÑAKI OSORO • Klub Deportiboa



Datorren urtean mendeurrena beteko duen Eibarko Klub Deportiboak ekitaldi berezia prestatu du datorren martitzenerako. Izan ere, argazkiak, aktak, dokumentuak, Kezka aldizkariak eta abar batzen dituen artxibo digitala aurkeztuko dute, gero herritar guztien eskura lagatzeko. Hori gutxi ez balitz, klubaren hasieratik erabili duten logoa berriro dute eta martitzeneko saioa aprobeztatuko dute logoa hori ezagutarazteko.

Martitzeneko saioa 19:00etan hasiko da, Coliseo antzokian, eta artxiboa eta irudi berria lantzen aritu diren lagunek egingo dute berba bertan. Saioa doan izango da, baina sarrerak Deporreko tabernan hartu beharko dira gaur, bihar edo etzi, 17:30etik 21:30era.

Zer prestatu duzue martitzenerako?

ARESATZ: Coliseoko ekitaldiak bi atal izango ditu. Batetik, Klub Deportiboaren 100 urte hauek eman duten artxibo guztiaren aurkezpena egingo dugu; eta bestetik, etorkizunean klubak edukiko duen irudi berria aurkeztuko dugu. Gaur egunera arte izan dugun logoaren modukoa izango da, baina eguneratuta. 100 urte pasatu dira, gizartea aldatu da eta aldaketa horretan irudia ere aldatu beharra sentitzen genuen.

Zer aurkituko dugu aipatutako artxibo horretan?

IÑAKI: Artxiboa, jende guztiarentzat irekita egongo da, Klub Deportiboa herriarena dela pentsatzen dugulako. Artxibo honetan Klub Deportiboaren inguruan sortu den guztiaren apur bat besterik ez dugu jaso. Izan ere, momentu honetan 2.700 bazkide gara, 1954. urtera arte ez genuen lokal propiorik eduki, batzorde askoren lana ez da hemen garatzen kanpoan baizik, bolunta-

rioak daude, etxetik jarduten dutenak... Orduan, etxe batzuetan paperak aurkitu ditugu, beste batzuetan ez, eta batu dugun apurra bildu dugu artxibo honetan.

Apurra da, baina asko da hala ere, ezta?

IÑAKI: Bai, azkenean urte asko izan dira. Adibidez, orain dela ehun urteko aktak digitalizatu ditugu eta akta guztiak daude, baita sorrerakoa ere. Gero, 1962 ingurura arte publikatu ziren boletinak batu ditugu, baita gerra aurrekoak ere. Horrez gain, 1964tik 2000. urteraino publikatu ziren Kezka aldizkariak ere digitalizatu ditugu. Eta, azkenik, argazki koadrila handi bat: Euskal Jaikoak, mendikoak, txirrindularitzakoak, atletismokoak, pilotakoak... Batzorde batzuetakoak beste batzuenak baino gehiago daude, argazkiak egiteko tradizioa ez delako berdina guztietan.

ARESATZ: Gaur egun agian ez hainbeste, baina lehen urpekaritzakoek zailagoa zuten argazkiak egitea, adibidez.

IÑAKI: Gauza bat oso argi dugu: Hau hasiera besterik ez dela. Batetik, artxiboa osatzen jarraituko dugulako klubean aktibitatea dagoen neurrian. Eta bigarrenik, seguru gaude jendeak hau ikusten duenean artxibo gehiago ekarriko dituela.

Nolako lana egin behar izan duzue artxiboa osatzeko?



Deporreko artxibo digitala eta irudi berriua aurkeztuko dute martitzenean. EKHI BELAR

ARESATZ: Dokumentazioaren zati bat hemen zegoen, Deporreko egoitzan (Kezka aldizkariak, aktak, paper ofizialak...), eta argazkietako asko familia batzuek dohaintzan emandakoak izan dira, etxean zituztelako eta abar. **IÑAKI:** 6-10 familiak argazki multzo ederra eskaini dute dohaintzan, 1.000 argazkitik gora, eta Coliseon eskertza egiteko aprobetxatuko dugu egin duten esfortzuagatik eta kluba kontuan edukitzeagatik.

Artxiboa non egongo da ikusgai?

IÑAKI: Deporreko web orrian lotura bat egongo da (deporeibar.artxiboa.eus) eta bertan ikusi ahal izango da digitalizatuta dagoena. Gainera, digitalizatuta ez dagoena non dagoen jakiteko balioko digu eta zerbait konkretua lortu nahi izanez gero, gurekin harremanetan jartzea besterik ez dago. Era berean, hemendik aurrera dohaintzak egin nahi dituztenak ere gurekin jarri daitezke harremanetan.

ARESATZ: Artxiboa osatzen lana egin dugu, baina era berean dokumentu eta argazki berriak lortzeko atea izatea nahiko genuke. Lan itzela izan daiteke, amaigabea.

Deporren irudi berriari dagokionez, zer aurreratu dezakezue?

“Artxiboa osatzen lana egin dugu, baina era berean dokumentu eta argazki berriak lortzeko atea izatea nahiko genuke”

ARESATZ: Orain dugun logoak 100 urte ditu eta berdintsua izaten jarraituko du. Guztiz identifikagarria izango da, inork ez dezala espero ezer berririk, baina beste txukuntasun bat du, modernoagoa dela esan daiteke. Gaur egun ez dira hainbeste kolore erabiltzen, lehengo logoak forma barrokoagoak ditu... Berria garbiagoa dela esango nuke.

IÑAKI: Agian jendea konturatu ere ez da egingo logo berria denik.

Nor arduratu da logoa berritzeaz?

IÑAKI: Irupe Jaiio. Gainera, berak azalduko ditu aldatetaren nondik norakoak Coliseon. Bestetik, ar-

BIDEOA



txiboaren lanak Ereiten enpresak zuzendu ditu eta aurkezpenean parte hartuko dute baita ere.

Logo berriarekin etorkizunera begira jartzen da Depor. Nola eusten zaio osasuntsu 100 urte beteko dituen klub bati?

IÑAKI: Aresatzek eta biok aspalditik ezagutzen dugu kluba eta batzorde guztietan, orokorrean bezala, momentu altuak eta baxuak izaten dira. Orain ere, batzuk pil-pilean daude, eta horren adibide da Eibarko Itzulia. Pandemia aurretik 100 lagun inguru batzen ginen, pandemian 300 lagun bildu ginen eta aurten 500etik gora. Zer gertatzen da, ba? Horrela dira gauzak, ez dut uste ezer ezberdinik egin delako gertatu denik, baina jendea animatu egin da. Horrela gertatzen da beste arlo batzuetan ere. Lehen, irailean Arantzazura egiten zen ibilaldira hamar autobus baino gehiago joaten ziren eta orain kosta egiten da autobus bat betetzea. Momentuak daude eta kluba osasuntsu dagoela uste dut.

ARESATZ: Azken urteotan gizartea asko aldatu da. 100 urteak kontuan hartzen baditugu, ez da gauza bera lehen 50 urteetan egon zen aldaketa edo azken 50 edo 25 urtetan aldatu dena. Deporrek momentu berrietara egokitzen jakin izan du. Batzorde batzuk indartsu daude momentu baten eta eguneratuago daudela ematen du, eta badirudi beste batzuk atzerago geratu direla, baina momentuaren arabera gauzak dira. Gorabehera guzti horiekin klubak aurrera egiten jarraitzen du.

Datorren urtean mendeurrena ospatuko duzue. Presatzen ari zarete?

IÑAKI: Urtebete baino gehiago daramatzagu gauzak prestatzen. Artxiboaren kontuaz gain, ekintzak zirriborratuta ditugu, programak eginda daude, eta abar. Polita izango dela uste dut eta orain arte jarraitutako bidetik joango da filosofia. Azpimarratu nahiko nuke ospakizunak kalean egitea nahi ditugula. 75. urteurrenean, adibidez, pertiga-jauzia kalean egin genuen, Toribio Etxebarria kalean, eta oraingoan ere antzeko gauzak egingo ditugu.



1967 urteko Arrate Igoeraren irteera Dos de Mayo kalean. JUANITO TXOKO

“Mendeurreneko ospakizunekin herriari zer garen erakutsi nahi diogu eta parte hartu dezala”

ARESATZ: Herriari zer garen erakutsi nahi diogu eta parte hartu dezala.

IÑAKI: Hori da gure filosofia, jendeak kirolean eta kulturaren parte hartzea.

Beraz, martitzeneko ekintza mendeurreneko ospakizunen lehen txinparta izango da?

ARESATZ: Hori da, jendea erne jartzeko. Klubak urtarilaren 30ean beteko ditu ehun urteak eta hortik aurrera hasiko gara mendeurrena ospatzeko ekintzak egiten.



FILBENREPORTAJEA

Olinpiada Txikia
J.A. Mozal Ikastolan
2023/06/10





10 urteko poesia emaria Ibarkurutzeko iturrian

Ibarkurutzeko iturri berrituak poesia emanaldia jasoko du bihar, 19:00etatik aurrera, hamargarren aldiz. Maite Lorenzok sustatutako ekintzak ekitaldi berezia biziko du bihar eta, poesia protagonista izango den arren, musikak girotuko ditu errezeitatzaileen berbak. Hor aurkitu du tokia poesiak gure herrian eta belaunaldi berriei atea irekiko die poemen munduan sartzeko.

Poesia-Musika X. Gaua egingo da gaur Ibarkurutzeko iturriaren inguruan. Edizio borobila da, baina Maite Lorenzo ekimenaren antolatzaileak dio ez dutela oso gauza berezirik antolatzea nahi izan. “Ez dugu poeta berezirik ekarri nahi izan. Egia esan, ekitaldia antolatzen hasi eta bi egunetara hogeita hamar lagunetik gora lagun zeuden etortzeko prest”, esan digu.

Eibarko, Ermuko (“Ermuko liburutegian poesia klaseak ematen ditut eta bertan parte hartzen duten gehienak etorriko dira), Bilboko (“Bilboko Gaur Poetikoko lagunek hasieratik lagundu didate eta eurek erakutsi didate gauzak nola egin”), eta Donostiko eta inguruko herrietako (“Ermuko klaseetara hango sei lagun etortzen dira poesia ikastera”) lagunak bilduko dira Ibarkurutzen gaur arratsaldean.

Parte-hartzaile bakoitzak errezeitatuko duen poesia aukeratzen du. “Zehazten diedan gauza bakarra denboraren muga da. Izan ere, aurreko edizioetan poeta batzuek zortzi minutuko errezeitaldiak eskaini dituzte eta gehiegi da. Poemak interesgarriak izaten dira, baina hain luzeak egiten baditugu, parte-hartzaile asko

garenez, gehiegizkoa da”, kontatu digu Lorenzok. “Gero, beste batzuek 50 segundoko poemak errezeitatzen dituzte, hori bai”, dio barrez.

Batzuek poeta famatuen lanak errezeitatuko dituzte, baina beste batzuek eurek sortutako poesiak. “Lan handia egiten dute euren poesiak argitaratzeko. Orduan, ekitaldia bideoan grabatuko dugunez eta bertatik euren parte-hartzeak hartu ditzaketenez, bertan parte hartu izanagatik ordaintzeko modu bat da moduren baten”, Lorenzoren berbetan.

Aurtengo berritasun bat da saioa barixakuan egingo dela eta aurrekoetan baino pixka bat lehenago. “Lehen zapatuan egiten genuen, 20:00etan, eta gauean garraio publikoa zuten etxera itzultzeko. Baina aurten barixakura aurreratu dugu eta gauean ez dago garraiorik, beraz, pixka bat aurreratu behar izan dugu”, diosku antolatzaileak.

Musika lagun

Poesia musikarekin jantziko dute gaurko emanaldian eta Alberto Egia, Javi Alzola eta Jurgen Landa arduratuko dira horretaz. “Alberto Egia santua da. Behin ‘Grito de Mujer’ ekimenaren



Orain dela urte batzuetako saioa Ibarkurutzen. ARTXIBOA

saio batera etorri zen Javi Arnaizen poema bati pianoarekin musika jartzeko. Teklatu bat ekarriko zuela esan zigun, baina guk Coliseon dagoen pianoa eskaini genion eta zoragarri iruditu zitzaion. Javiren poemarekin entseatzen hasi zen eta bertan geundenok gure poesiekin ere zerbait egiteko eskatu genion. Orduan, denontzat jo zuen”, kontatu digu Lorenzok. “Zein poema errezitatuko duzun jakin gabe, berak inprobisatu egiten du. Demaseko pertsona da eta asko maite dut”.

Hau ez da Lorenzo eta Egiaren arteko elkar-lan bakarra. Izan ere, ‘El dia que me quieras’ izeneko ikuskizuna prestatu dute. “Poesia gustatzen ez zaienei dago zuzenduta”, Lorenzoren berbetan. “11 poema hautatu ditugu, oso onak direnak, eta oso ondo lantzen saiatu gara ahalik eta modurik onenean transmititzeko eta, saioa amaitzean, jendea poesiarekiko gustuarekin irteko, zertxobait besterik ez bada ere”.

Egiak ‘El pacto’ taldean jotzen du, Bruce Springsteen abestiak jotzen dituen bandan, Javi Alzola saxofonistak bezala. Alzola, gainera, ‘Fito y los Fitipaldis’ taldean dabil, ‘Platero y tu’ eta ‘Extrechinato y tu’ bandetan ibili ondoren.

>>> Euskal Herriko toki ezberdinetatik etorritako hogeita hamar lagunetik gora ibiliko dira poesia errezitatzen

>>> Alberto Egia, Javi Alzola eta Jurgin Landa musikariek poesiak jantziko dituzte musika-tresnen eta ahotsen bitartez

“Oso maila handiko musikaria da eta pertsona bikaina”, Lorenzoren ustez. “Albertori galdetu zion ea zertan zebilen poesia kontuekin eta, kontatu zionean, gustatu egin zitzaion eta parte hartu nahi izan zuen. Pandemiaren osteko urtean, Txaltxa Zelain egin genuen emanaldian, Vicente Alexandreren poesia errezitatu genuen eta berak saxofoia jo zuen entseatu gabe, inprobisatuz, eta zoragarria izan zen”.



Publikoak oso ondo erantzun du orain arte egin diren bederatzetako edizioetan. ARTXIBOA

>>> Euriarengatik eta pandemiarengatik beste toki batzuetan egin behar izan dute batzuetan, baina Ibarkurutzen egin ohi da beti saioa

>>> Gaurko saioan lau neskatok hartuko dute parte eta belaunaldi berriak poesiaren lekukoa hartzea da garrantzitsua Maite Lorentzen zat

Hirugarren musikaria eibartarra da, Jurgen Landa. “Eibarko Koro Gazteko zuzendari izan den Elena Martinek beti ekarri digu abeslari eta abesbatzaren bat Poesia-Musika Gaue-tara eta aurren Jurgen izango dugu gurekin. Txikitatik ezagutzen dut eta oso pozik nago. Berak sortutako hiru abesti kantatuko ditu eta ezustekoa izango da guztiontzat”, antolatzaileak dioenez.

Belaunaldi berriak

Lorenzo pozik dago parte-hartzearekin. Ez bakarrik poetek eta musikariek erakutsi duten prestutasunagatik, baizik eta lau neskatok arituko direlako poesia erreztatzen. “Oso garrantzitsua da hori, agian ekimen honetako gauzarik garrantzitsua”, bere iritziz. “Berebizikoa da guzti honek jarraipena izateko”.

Nesketako bik laugarren aldiz jardungo dute bertan, beste batek hirugarrenez, eta eurretako batentzat lehenengo aldia izango da Poesia-Musika Gauan. “Ez dakit zein puntutaraino gustatuko zaien poesia, ikusi beharko dugu. Nik ez diet esaten zer errezitatatu behar duten, libre lagatzen diet. Hori bai, oso ondo erreztatzen dute”, diosku antolatzaileak.

Ondo erreztatzea, gainera, ez da gauza erraza Lorentzen ustez. “Poeta onak izan arren, batzuek ez dute errezitatzeko erraztasunik. Poesia egunkaria irakurtzen duzun bezala erreztatzen baduzu, ez da polita. Orduan, klaseetan erreztatzen erakusten dut. Ez hori bakarrik, baita laguntasuna, umiltasuna eta maitasun propioa ere, besteak beste”, azaldu digu Poesia-Musika gauaren antolatzaileak.



Berbetan jaialdiak agurtu du ikasturtea

Eta ondo agurtu ere! Joan den eguaztenean sekulako giroa sortu zen Errebal Plazan, Berbetan jaialdiaren barruan eskainitako “Gora bihotzak!” ikuskizunera familia ugari hurbildu zen-eta. Ez zen aspertzeko tarte txiki bat ere egon, dantzatu, abestu, barre... denetarik egin zuten bertaratu ziren haur zein helduek. Urritik aurrera izango da berriz ere Gurasoak Berbetan programan izena emateko eta eskaintzen dituen ekintzetan parte hartzeko aukera.



Eibar Rugby Erreginaren Kopa irabazi du Madrilen

Errugbi 7 modalitatean jokatutako Erreginaren Kopa bereganatu zuen aurreko asteburuan Cristina Guntin galziarrak zuzentzen duen taldeak. Amaiera ezin bikainagoa eman diote horrela denboraldiari, justu kirol horretako Eibarko erreferente nagusia izan den Amaiur Mayok errugbia laga duen unean: ez edozelan, gainera, torneoko jokalaria onena izendatu baitzuten. Modalitate olinpiko horretako estatuko talderik onenak hartu dituen lehiaketan eibartarrak gero eta hobeto joan dira egokitzen, txapelketako hiru faseetan ikusten joan den bezala. Valladoliden jokatutako lehenengokoan bosgarren amaitu



bazuten ere, Unbek hartu zuen bigarrenen Eibarkoa talde onena izan zen, sailkapeneko bigarren postura igotzeko. Eta azken asteburuan Madrilen azken ginga jarri dio egindako lehiaketa bikainari.

Majadahondak baino bi puntu gutxiagorekin aurkeztu ziren eibartarrak Madrilen eta, zapatuan Hortaleza, Industriales eta Sant

Cugat-i irabazi ondoren, domekako lehen partiduan Cisneros anfitrioiak gainditu zuten 19-0. Sailkapeneko gorenean zeuden bien artekoa jokatuz jarraian final kutsua hartu zuen finalaurrekoetan eta hor eibartarrak 15-10 nagusitu ziren berriro. Madrilen jokatutako seriea, dena dela, A Coruña eraman zuen, eibartarren aurretik.

32 talde kuadrillen Futbol 7ko torneoan

Bihar goizeko 10:00etan abiatutako da Unben Eibarko Kuadrillen arteko Futbol 7ko Torneoaren bigarren edizioa eta, iazkoarekin konparatuz, oraingoan zortzi talde gehiagok eman dute izena, aurreko 24tik 32ra pasatzeko. Ez da kopuru makala parte hartuko duten jokalariena, 500era iritsi baita. Giro bikainean Coliseon egin zuten torneoaren aurkezpena aprobetxatu zuten antolatzaileek txapelketaren zozketa egiteko. Partiduak 20 minutukoak izango dira, hamar minutuko bi zatitan banatuta. Aldi berean, bi igerileku kokatuko dira, bana zelai bakoitzean. San Juan jaien barruko egitarauko ekitaldia izanik, giroa ere berezia izango da, Ustekabe txaranga tartean dela.



Markel Simon, gerriko beltzarekin, Hegoi Esteban prestatzailearekin.

Kalamuako Markel Simonek judoko gerriko beltza eskuratu du

Aurreko zapatuan Anoetako Arte Martzialetako gunean egindako azterketetan Markel Simon eibartarrak bere izena gehitu zion gerriko beltza eskuratu duten Kalamuako judoken zerrendari. Horretaz aparte, egun berean Usurbilgo Oiaro kiroldegian jokatutako Benjamin mailako Jaialdian Kalamuako ordezkariak urrezko domina bat (Josu Garro), zilarrezko bi (Uxue Gutierrez eta Adrian Sanchez) eta bronzetako hiru lortu zituzten (Alain Gonzalez, Xabi Larrañaga eta Ian Blanco). Bi ekitaldietan Kalamukoen progresioa ikusi ahal izan zen.

Euskal Jaialdiak 28. edizioa biziko du domekan Untzagan

Aurtengo jai egitarau ofizialean azal-tzen ez bada ere, Sanjuanetako tradizio handiko herri-kirol erakustaldiak ez dio kalerik egingo urteroko hitzorduari. Eguna ere iazkoa errespetatuko du (domekan izango da) eta Jubilatuen Etxeko plazan antolatuko dute (euria egingo balu udal-letzeko arkupean). Edizio guztietan parte hartu duen Ernesto Ezpeleta “Bihurri” martitzenean harrapatu genuenean ekitaldirako egurraren bila ziharduen hemendik kilometro batzuetara: “Iratiko basoan gaituk, nahiko bustita, bi orduan euria barra-barra bota dik-eta”. Hala ere, pozik zegoen aurkitutako materialarekin, “erakustaldirako eta lehiaketarako aproposak aurkitu baitiagu”. Domekakoa, betiko lez, erakustal-



diarekin hasiko da, motorrak berotzen joan eta, ondoren, lehiaketari eusteko. Aizkolariek hiru modalitateetan (esku batekin, abiaduran eta zutika) egingo dute lan eta Iparraldeko jokoentzako tartea ere izango da (lasto jasotzea, ingudea, atxurra etabar protagonista bihurtuz). Lehiaketan hiru hirukotek hartuko dute parte, “aizkorarekin hasi, harri-jasotzearekin jarraitu, ondoren txingekin jardun, eta korrikaldiare-

kin amaitzeko” diote...eta kitto!-ko antolatzaileek. Parte-hartzaileei dagokienez, Ane Zinkunegi eta Olaia Esnaola izango dira harriak jasotzen, Andoni Elizondo Iparraldeko jokoetan, eta aizkolarien seikotea Josean Etxeberria, Julen Mendietta, Goizeder Beltza eta Jexus Mari Mujikak osatuko dute, Alex Txikon eta Bihurriekin batera. Jaialdiaren iraupena ordu eta erdiren bueltan izatea aurreikusten dute.

San Juan txapelketaren finalak Astelenan

Sei partiduk osatuko dute bihar goizerako Eibarko Klub Deportivo boko pilota batzordeak Astelenan antolatutako jaialdia. Pilota eskolan entrenatzen diharduten pilotariak emango diote hasiera jaialdiari, azkenean seniorren arteko beste bi partidurekin amaitzeko. Honakoa izango da norgehiagokan



ordena: benjaminetan, Segurola/Flores vs Alberdi/Kerejeta; infantiletan, Uria/Oñederra vs Lazkano/Uranga eta Del Rey/Amillategi vs Gil/Varona; kadeteetan, Azpilikue-ta/Urkiaga vs Segurola/Gisasola; 4^oterdiaren barruan, Azkargorta vs Viana (Zumarraga); eta seniorretan, Narvaiza/Conde vs Ibarra/Agirresarobe. Sariak banatu ondoren, luntxarekin amaituko da eguna. Bestalde, datorren ikasturterako Pilota eskolan matrikulatzeko epea ere zabaldu dute. Interesatuak izena eman beharko dute pilotaeskoladeporeibar.com helbidean, eta “zalantzan daudenak” hilaren 20an eta 22an pasa daitezke Astelena frontoitik “17:00etatik 19:00etara antolatuko ditugun ate irekietara”.



Ruiz de Galarreta Athletic-era itzuli da

Eibarko jokalaria talde zuri-gorriarekin fitxatu du berriro ere, bi urterako kontratua sinatuta. Bera izango da Athletic-ek datorren sa-soirako egin duen lehen fitxaketa eta 2025era arte iraungo du lotutakoak. Ruiz de Galarreta etxera itzuliko da 10 urteren ondoren, urte horietan Bartzelona B-n, Las Palmasen eta Mallorcan jokatu eta gero.

68 parte-hartzaile izan zituen Galdaramiño Igoeraren 13. edizioak

Domeka goizean jokaturako Galdaramiño igoerako XIII. edizioan 68 atleta izan ziren parte hartzen 18 kilometroko ibilbidea osatzeko, 900 metroko desnibela gainditzeaz gain. Guztira lau gailur gainditu zituzten: 669 metroko Galdaramiño, 726ko Azkonabitza, 590ko Topinburu eta 541 metroko Ilordo. Unai Fernandez nagusitu zen mutiletan, 1h 29' 57"ko denborarekin, hiru minutura heldu zen Eneko Azurmendiren eta ia boatera helmugaratu zen Iker Irasorzaren aurretik. Nesketan Oihane Sarasketa izan zen onena, 1h 45' 24"ko denborarekin, eta zazpi minutuko aldea atera zion Ane Ziaran bigarrenari; Cristina Lopezek osatu zuen podiuma. 45 urtetik gorako beteranoetan Roberto Vega izan zen lehenengoa eta eibartarrentza-



Eibartarrak ere izan genituen lasterketaren podiumetako postuetan.

ko sariak Esther Velasco eta Kepa Varelarentzat izan ziren.

Aurten ere Atzegiko lagunaren parte-hartzea izan zen ekitaldian, Gipuzkoako hainbat herritatik etorritako adimen desgaitasuna duten

lagunekin. Eurek ibilbide egokitu egin zuten, probaren amaieran sagardotegian bazkaltzeko. Antolatzailleek diotenez, "egun zoragarria izan zen guztiontzat, bai parte-hartzaile, bai bolondresentzat".



Adahi Erieder-ek irabazi du futbol zaletuaren Kopa

Aurreko zapatuan Unben jokaturako Kopako finalean Adahi Erieder-ek 2-0 irabazi zion Feredu Bar EzDok-i. Talde txapeldunaren Iker Martinez izendatu zuten final horretako jokalaria onena. Bestalde, partiduaren amaieran Ligako sariak ere banatu zituzten. Bar Txokok jaso zuen txapela, Garajes Garciak bigarren sailkatuarena eta Adahi Erieder-ek hirugarrenarena. Kiroltasun saria Bali Center Sports taldearentzat izan zen. Azkenik, Garajes Garciako Ricardo Manson atezainak irabazi zuen gol gutxien jasotakoaren saria eta Bar Txokoko Mikel Muniozgurenegoleatzaile nagusiarena, 30 golekin.

Urkiko talde guztien agurra denboraldiari

Aurreko barixakuan egin zioten agur denboraldiari Urki futbol taldekoek, ohikoa denez, Ipur sagardotegian egindako afariarekin. Aukera aprobetxatuz, gainera, sariak banatu zizkieten talde bakoitzeko goleatzaile nagusienari eta jokalaria erregularrenari, hurrenez hurren: alebinetan, Unai Mendez eta Marcos Blanco; txiki mailan, Osotiz

Errasti eta Peru Baskaran; infantiletan, Danel Garrido eta Koldo Baglieto; kadeteetan, Danel Perez eta Alex Araujo; ohorezko kadeteetan, Amr Bensslaiman eta Markel Arizmendi; jubeniletan, Jon Osa eta Asier Arrieta; ohorezko jubeniletan, Markel Arosa eta Pello Osoro; eta Gorengoenean, Aner Zubizarreta eta Josu Mora.

Urbatek ondo merezitako omenaldia jaso zuten udaletxean

Aurreko barixaku arratsaldean Udalak gure herriko waterpolo klubari errekonozimendua egin zion gizonzkoen senior mailako lehen taldea 2. Maila Nazionalera igoberri dela-eta, lorpen hori goraiatzeko herritarren aurrean. Mikel Recio eta Anartz Mitxelena jokalariek hitz batzuk bota zizkien kanpoan bildutako zaletuei eta, behin pleno aretoan, Jon Iraola alkateak "Ahalegina" izeneko eskultura eman zion Iñigo Kortabarria Urbateko presidenteari. Maila berria lortzearekin batera, datorren denboralditik aurrera talde



horrek jokatu beharreko partiduak Leioan izango dira seguruenik, Or-

beako igerilekua ez dagoelako homologatuta maila nazionalerako.

Parte-hartze arrakastatsua izan du V. Amañako pilota-txapelketak

Aurreko zapatuan jokatu ziren Amaña es la Caña antolatutako V. Esku Pilota Txapelketaren finalak Amañako Garajeetako frontoian. Honakoak izan ziren jokaturako partiduetako emaitzak: benjaminetan, Asurabarrena-Cruz (Zumarraga) 16, Axpe-Mugarza (Oñati) 11; alebinetan, Zubia-Urien (Arrasate) 18, Areitio-Padilla (Zaldibar) 5; nesketan, Zelaia-Retegi (Aretxabaleta) 18,



Lizarralde-Carretero (Oñati) 6; eta infantiletan, Alberdi-Juaristi (Azkoitia) 22, Mazhar-Ibabe (Aretxabaleta), 10. Oso partidu borrokatuak izan ziren eta zaletuek asko gozatu zuten partiduekin. Antolatzaileek eskertu dute babesle, boluntario, agintari eta Eibarko Udalaren laguntza, bereziki azpimarratuz Luis Narbaiza txapelketako kirol zuzendariak egindako lana.

San Juan Sari Nagusiaren 87. edizioa jokatu da domekan

Domeka goizean, 10:00etan hasita, jokatu da Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako San Juan

Sari Nagusia. Probintzia mailako junior proba hori aspaldikoenetakoa da (mendeurrenera iristeko dozena

bat edizio falta zaizkio) eta etzikoak ia 97 kilometroko ibilbidea izango du, tartean Kalbario (63,3 kilometroan) eta Azkarateko (79,9 kilometroan) gainak atzean lagata. Irteera, Untzagan izan beharrean, Julian Etxeberria kalean izango da oraingoan, anbulatorioaren aurrean, eta hortik Maltzagaraino joango dira martxa neutralizatuan, bertan irteera ofiziala egiteko. Lehenengokoen helmugaratzea 12:25erako espero dute antolatzaileek.





Eibarko irratiaren historiari eskainitako saio berezia

Aurreko barixakuan irratsaio berezia egin zuten Eibarko Udal Artxiboan bertan, Artxiboen Nazioarteko Eguna ospatzeko. *Hoy por Hoy Eibar* irratsaioko Juanma Canok gidatu zuen saioan hainbat gonbidatu egon ziren, tartean orain dela 70 urte gure herrian irratiari zebilen Raquel Olariaga. Yolanda Ruiz Artxiboko arduradunarekin batera, Eibarko irratiaren historiari errepasso ederra eman zioten, hainbat bitxikeria kontatzeaz gain. Horrez gain, Ego Ibarra batzordearen webgunean Eibarko irratiarekin lotutako argazki historikoak ipini dituzte ikusgai.



Juan San Martin Bekarako eskaerak aurkeztu daitezke

Udalak XVI. Juan San Martin beka deialdia argitaratu du. Aurtengo deialdian landuko den ikerketa esparrua “Mendizaletasuna eta natura”. Eibarko Udalak UEUrekin lankidetzak kaleratzen duen beka 9.000 eurokoa da eta eskaerak egiteko epea urriaren 12ra arte egongo da zabalik. Beka jasotzeko interesa duenak elektronikoki egin beharko du eskaera, www.eibar.eus udal webgunean. Argibide guztiak ere bertan aurkituko ditu.



Judas Argarate taldeak kontzertua emango du bihar, 20:00etan Zai Zoi tabernan

Bihar iluntzeko 20:00etan hasiko da Judas Argarate taldearen kontzertua, Zai Zoi tabernan. Elgoibarko Rodisa enpresan lankideak diren Markel Iraolak, Joseba Goñik, Hodei Otegi eta Carlos Balseirok sortutako taldeak baterijolea aldatu du (Ekaitzek hartu du Carlosen tokia), baina, bestela, betiko rock doinuak jotzen jarraitzen dute. Beraiek sortutako abestiekin batera, beste talde batzuen bertsioak ere joko dituzte.



Araceli Bonoren liburua aurkeztuko dute gaur

Gaur aurkeztuko du Araceli Bono Burgosk “Confesiones de Otoño” bere bigarren liburua, 19:00etan, Untzagako jubilatutako etxean. 2020an argitaratu zuen “Entre mis tacones” izenburuko liburuan bezala, honetan ere berak idatzitako hainbat poesia bildu ditu egileak. Lan berria aurkezteko Untzagako “Poesia eres tú” taldekoen laguntza izango du egileak. Liburuko hainbat pasarte erreztatuko dituzte.



Untzagako abesbatzak eta gitarra taldeak kontzertua emango dute bihar Coliseon

Urtero bezala, Untzaga Jubiletzeko Abesbatzak eta Nahaste Music Group gitarra taldeak Sanjuanetako kontzertua eskainiko dute Coliseo antzokian. Bihar izango da, 12:30ean hasita, eta bi euroko prezio simbolikoa ordaindu beharko da. Antolatzaileek azaldu dutenez, “lan handia egin da emanaldi erakargarria prestatzeko”. Kontzertuaren lehen zatian *Sabor a mi, Colores, El cha-cha-cha del tren, Itsasontzi baten eta Guk euskaraz* abestiak kantatuko dituzte. Eta, bigarren zatian, *Erribera, El dia que me quieras, La Bambá, Ixil-ixilik dago* eta *San Juan ereserkia* (azken hau, publikoarekin batera).

Abesbatzarekin batera arituko den Nahaste Music Group gitarra taldeak, bestalde, atsedendian joko du. Bakarkako hainbat kantu eskainiko dituzte: *Padam padam, Cuando sali de Cuba, Parece que va a llover, Delilah, Piensa en mi, Quizas, quizas, quizas* eta *Quien sera*.



Familian euskaraz jolastu eta irakurtzeko gida egin dute

Juan San Martin Liburutegiak oporretan euskaraz jolasteko eta irakurtzeko gida prestatu du, Eibarren AKEBAIrekin elkarlanean. Gida Udalaren webgunean ipini dute eskuragarri eta, bertan, haur txikienetarik hasita 12 urtetik gorakoentzako gomendioak bildu dituzte. Diotenez, “opor garaian seme-alabekin egoteko denbora gehiago dugunez, euskara eta irakurmena indartzeko ere une egokia da”.

UEUren udako ikastaroak egiteko dirulaguntzak eskatu daitezke

Eibarko Udalak UEUko ikastaroak egin nahi dituzten eibartarrei zuzendutako dirulaguntza deialdia argitaratu du. Dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik egongo da urriaren 2 arte. Dirulaguntza hau 2022ko irailearen 1etik 2023ko uztailaren 31ra arte UEU ikastaroak egin dituzten eibartarrei zuzenduta dago eta, dirulaguntza deialdiko baldintza guztiak betetzen dituzten herritarrek, ikastaroaren matrikula kostoa %50 jasoko dute bueltan. Udalaren webgunean kontsultatu daitezke zehaztasun guztiak.

Zuloagari buruzko hitzaldia



Eibarko Artisten Elkarteak hitzaldi-solasaldia antolatu du datorren asterako. Arte Ederretan lizentziatua eta Arte irakaslea den Ricardo Aldama Ignacio Zuloaga margolari eibartarri buruz arituko da berbetan, eguaztenean, 18:30ean Portaleko areto nagusian. Sarrera libre izango da.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	3				5		9
4					6	2	
	5		8		3		
9		3		4			
		9	5	7			
		6		1			4
		5		9		1	
	8	9					7
7	6					5	

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa


**S
U
D
O
K
U**

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		9	1	8			3
				4	8		
		3		2	6		
9							4
	6		2	3		8	
7							2
			5	6		9	
		8	7				
6		8	1	5			



**L
A
B
I
R
I
N
T
O
A**

Ekainak 16/22

BARIXAKUA 16

JOLASAK

16:30/19:45 Umeentzako jolasak, Eibar BHI-ko ikasleen eskutik. Untzaga.

SQUASH

17:00 XIX. Eibarko Hiria squash sariaren kanporaketa fasea. Ipurua kiroldegia.

POESIA

19:00 Poesia eta Musika Gaua. Ibarurutzeko iturria.

LIBURU AURKEZPENA

19:00 Araceli Bonoren "Confesiones de Otoño" liburuaren aurkezpena eta poesia errezitaldia. Untzagako jubilatutuek.

DANTZA

20:00 Ballet Eibarres taldearen emanaldia. 3 euro. Coliseo.

MUSIKA

21:30 Ehun Kilo eta Su ta Gar taldeen kontzertua. Untzaga.

ZAPATUA 17

JOLASAK

09:30/20:30 Simulazio tailerra (modelismoa, eszenografia eta mahai-jokoak), Odisea elkartearen eskutik. Erreal Plaza.

PILOTA

10:00 XXIX. San Juan Torneoko finalak. Astelena frontoia.

FOBALL 7

10:00 Eibarko kuadrilen II foball 7 txapelketa, 1960-2006 urte artean jaiotakoentzat. Unbe.

ZUMBA

10:30 Zumba saioa, Kaxa Mugimendu eta Sormen Gunearen eskutik. Untzaga.

MARTXA SOLIDARIOA

11:00 Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartearen martxa solidarioa. Untzaga.

BOLO PALMA

12:00 XXXV. Eibarko Hiria Bolo Palma txapelketa. Ipurua kiroldegia.

MUSIKA

12:30 Untzaga Jubiletzeko Abesbatzaren eta Nahaste Music Group gitarra taldearen sanjuanetako kontzertua. 2 euro. Coliseo.

SQUASH

16:00 XIX. Eibarko Hiria squash sariaren finalak. Ipurua kiroldegia.

MUSIKA

20:00 Judas Argarate taldearen kontzertua. Zai Zoi taberna.

MUSIKA

23:00 Fangoria taldearen kontzertua. Untzaga.

INFORMAZIO-GUNEA

23:30/02:30 Alkohol eta drogen kontsumoaren gaineko informazio eta prebentziorako karpak. Untzaga.

MUSIKA

01:00/03:00 Dantz Point, musika elektronikoa herriko Unai Santos Djarekin eta Yahaira Djarekin. Untzaga.

DOMEKA 18

TXIRRINDULARITZA

09:30 LXXXVII. San Juan Sari Nagusia – Gipuzkoako txapelketa, junior mailakoa. Irteera eta helmuga Untzagan.

HERRI-KIROLAK

12:30 Euskal Jaialdia. Herri-kirolen erakustaldia eta txapelketa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Untzaga.

BILLARRA

17:00 II. San Juan Txapelketa 3 bandako billarra. Casino Artista Eibarrés.

MARTITZENA 20

AURKEZPENA

19:00 Klub Deportiboaren artxibo digitalaren eta irudi berrituaren aurkezpena. Coliseo.

EGUAZTENA 21

HITZALDIA

18:30 Ignacio Zuloagari buruzko hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Portalea (areto nagusia).

DANBORRADA

19:00 Umeen entsegua.
20:00 Helduen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarrasketa).

EGUENA 22

BARRAKAK

Egunean zehar, feriako atrakzioen prezioa 0,90 eurokoa izango da.

SANJUANAK

14:00 Estaziño kalekoen txupinazoa. Ibarurutzeko iturria.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutuek.

PUZGARRIAK

17:00/20:00 Umeentzako puzgarriak. Untzaga.

ANTZERKIA

19:00 Umeentzako antzerkia: "Txaplin", Tutik Klown (Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak) konpainiaren eskutik. Untzaga.

TXOSNAK

19:00 Txosnak zabaltzea.
19:30 Kulturarteko pintxopotea.
21:00 Kontzertuak: Julu eta Akerbeltz. Txosnagunea.

ANTZERKIA

22:00 "Carbon Club", Markeliñe konpainiaren eskutik. Untzaga.



ERAKUSKETAK

Ekainaren 20ra arte ZERAMIKA ETA DIBUJO UDAL ESKOLETAKO ikasleen lanak (Portalea)

Irailaren 1era arte "TAILERRETIK BULEGORA. EIBARKO PRODUKTUAK" (Armagintza Museoa)

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **17an:** 19:45, 22:30
- **18an:** 20:00
- **19an:** 19:30

“Como Dios manda”
KOMEDIAZKOA




2023/Espainia /90'
Zuzendaria: Paz Jimenez
Aktoreak: Leo Harlem, Maria Morales, Daniel Perez Prada
Umorea / Bizitza aldaketa

2 ARETOA

- **17an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **18an:** 17:00, 20:00
- **19an:** 19:30

“Padre y soldado”
DRAMATIKOA



2022 /Frantzia /109'
Zuzendaria: Mathieu Vadepied
Aktoreak: Omar Sy, Alassane Diong, Jonas Bioquet
Belikoa / Munduko Gerra

ANTZOKIA

- **17an:** 17:00, 19:45, 20:00
- **18an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **19an:** 19:30

“Kepler Sexto B”
DRAMATIKOA



2023/Espainia /97'
Zuzendaria: Alejandro Suárez
Aktoreak: Karra Elejalde, Daniel Pezzotti, Jorge Bosch
Fantastikoa / NASA

ANTZOKIA

- **17an:** 17:00
- **18an:** 17:00

“Alan Giza Antena”
ANIMAZIOZKOA



2022 /Danimarka /85'
Zuzendaria: Amalie Naesby
Estralurtarra / Giza espeziea



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **IRENÍ**, domekan 9 urte beteko dozuz-eta. Askoi maite zaitugu. Muni haundi bat, aitta, ama eta Ederren partez.



Zorionnaakk, **JULE!!!** Bixar 10 urte beteko dozuzelako! Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **IKER!!** Hillaren 13an 5 urte bete dozuz-eta. Etxekuen eta, bereziki, Aneren partez!!



Zorionak, **LOREA**, eguazten honetan zure 25 urtiak ondo ospatuko zenduz-eta. Patxo potolo haundi bat etxekuen partez!



Zorionak, **MARA** (hillaren 21ian 11 urte beteko dozuz) eta **URKO** (abuztuaren 5ian 7 egingo dozuz). Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **ARENE!!** Gaurko egunian 6 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **ANE!!!** Zapatuan 7 urte beteko dozuz-eta, neska haundi!!! Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **SUA!!!** Etxekuen partetik: 3 belarri tirakada eta musu erraldoi bat!!!



Txomin Ibarluzea Orbe "Irai"



1. URTEURRENA
2022/06/19

"Zure irribarreak irauko du gure bizitzak argitzen. Beti gure bihotzean"

ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEOAK -



Juan Luis Baglietto Arrizabalaga



9. URTEURRENA
2014/06/16

"Zure irribarreak eta maitasunak gure bihotzean diraute"

MAITE ZAITUGU
- ETXEKUAK -

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibarren. 943031363.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko ekainean eta uztaileko lehenengo astean. 646057965. Miren.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) Eibar eta inguruan. Orduka. 602490595.
- Neska eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. 651432384.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. 641988643.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. Externa. 602398328.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. 676553093.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 632881068. Jessi.
- Gizona eskaintzen da pintore, peoi... lan egiteko. 631509262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin), baita ospitalean ere, eta etxeak garbitzeko. Orduka. 667060292.
- Emakume euskalduna (goi mailako teknikaria HHn eta EGArekin) eskaintzen da umeak zaintzeko. Ekainean eta uztailean. 660522271.

- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko (tituluarekin). Esperientzia. 626407923.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin). Baita asteburuetan ere. Esperientzia. 64257823.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin). Baita gauzez ere. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Neska eskaintzen da kamare-ara jarduteko, garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 622023451.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 604986450.
- Neska eibartarra eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientzia handia eta erreferentziak. 699473761.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko (etxeak, pegorak, bulegoak) eta nagusiak zaindu edo laguntzeko. 620757528. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (ziurtagiri sozio-sanitarioa) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Autoarekin. 612223075.

4.2. Langile bila

- Martxan dagoen taberna eskuragarri. Baldintza onak. 645109141
- Dendaria behar da Eibarko moda-denda batean. Jornada erdiz (goizez). Bidali curriculum-a: eibardenda@yahoo.com

- Aho eta hortzetako higienista behar da. hortzklina.06@gmail.com
- Administrazio komertziala behar da arratsaldean lan egiteko. Bidali curriculum-a: akomertziala@gmail.com
- Pertsona behar daidazkarilanak, errekaduak etabar egiteko. 622183411. luengo41@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Pertsona behar da DBH3ko Matematika eta Fisikako klaseak emateko irailetik aurrera gure etxean. 627307168. Naiara.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Ohe-artikulatu geriatrikoa salgai. Oso egoera onean. 667938638.

eta kitto!
euskara elkartea

**Sagardo eguneko
SARIA**

Prezioa: 1€

Zbk:

**Sagardo eguneko
SARIA** Urriaren 28tik 29ra

HOTEL DE LONDRES Y DE INGLATERRA
2 laguntzako giua + afora + arrosa (28tik 29ra)

ARIMA Hotel & Spa, Gastro&Relax esperientzia
Spa 90 minuta + barkaria (urriaren 29an)

Prezioa: 1€ Zbk:

eta kitto!
euskara elkartea

ZOKETA
SAGARDO EGUNEAN
egingo da (**urriak 7**),
iluntzean, Untzaga
plazan

Sario pasorako irabazleak
entzuten dira oraineko eta
irango du lehendikio 12.000k
orain. Tel. 944 704 387

SAGARDO EGUNEKO RIFAK HEMEN SALGAI

ISASI Okindegia
ZABALETA Okindegia
BOLINTXO Okindegia
MARIA OSPITXAL

UNTZAGA Prentsa
ECHETTO Prentsa
MUGIKA Harategia
OTEGUI Harategia

KULTU Taberna
ZUBI GAIN Taberna
GURIDI Taberna
IZADI Loradenda

**San Juan
Sua**

ekainak **23**
23'00etan

eta kitto!
euskara elkartea

gremioen gida



943-206776

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. IRRASPROKETA
BERRIA, 4 - ac
E.I.T.

TRAJAKTIBEN
ERAKUNTZEN
ERREFORMAK
E.I.T.
info@eiprofictna.com 412. 943 80 18 00
AJT Etorresuna S.L.P.
Barrova, 6 - beheko esk.

KRISTALAK

HELVIDE
BERRIA
ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristeriaacha.com ERAKUSKETA
eta faxa: 943 203 903 Arkitizateko Zubian

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txontea, 30 - 1. eta beheko
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkiza 28an (Tel. 943 12 74 01)

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

José María Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeez
goza dezazun

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK

Tel. 667 54 89 16



KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

ELEKTRIZATEA

THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
610 532 922 www.thelecer.com
24 orduko
argentziak